

LAPONIAKO MENDIETAN BARRENA



■ Tarfala aterpea



Testua eta argazkiak
Iker Zubimendi Idarreta

Biologian lizentziaduna, bere bidaietan batik bat natur guneak bisitatzea du gustuko. Laponiara egindako honetaz gain, Pirinioetan, Alpeetan, Atlas mendietan eta Himalaian hainbat ibilaldi eta trekking burutu izan ditu. Mendian, igorak eta zeharkaldiak jarduera nagusiak izanik, tarteka mendi eskia ere praktikatzen du.

Kungsleden bidea Suediako mendi ibilbide ezagunenetakoa da. Herrialde honen iparraldean kokatzen da, Laponian, Samien lurraldean, eta Europan geratzen diren eremu basatienetako batzuk zeharkatzen ditu. Hala ere, orokorrean ondo egokitutako bidea da eta estrategikoki kokatuta dituen aterpeek asko errazten dute luzera eta zailtasun desberdineko zeharkaldien antolaketa.

Laponia. Hotza, elurra, gauerdiko eguzkia, eguerdiko gaua, izei eta pinuak, elur-oreinak, aurora borealak. Horiek dira gehienoi burura datozkigun irudiak Laponia hitza entzuten

dugunean. Europako iparraldeko eremua da Laponia eta lau herrialde artean banatuta dago: Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusia. Klima gogorra dela eta, Laponiak beti izan du giza populazio txikia. Bertako jatorriko biztanleak Samiak dira eta tradizionalki elur-oreinaren artzaintzan aritu izan dira. Egun, lan horretan diharduten Samiak badaude oraindik, nahiz eta gehienak beste lan erosoagoetan aritzen diren. Bestalde, meategi eta beste baliabideen ustiapenak dakarren aberastasunak erakarrira hiri bakanak hegoaldeko jendearekin birpopulatu dira. Dena den, oso gutxi

urbanizatutako eremua izaten jarraitzen du eta baso zabalek, zuhaitz gabeko tundrak eta tamaina guztietako lakuek osatzen dute oraindik lurraldearen zatirik handiena.

**Mendien artean lakuez
jositako haran zabalak
tartekatzen dira.**

Laponiako azalera nahiko laua da orokorrean, baina mendebaldean, Norvegia eta Suediako

mugan, Eskandinaviako Alpeen ipar eremua txertatzen da. Bertan kokatzen dira Laponiako mendi multzo altuenak: Sarek (2089 m) eta Kebnekaise (2111 m). Oso garaiak ez diren arren, zirkulu polar artikoetik iparrera kokatutako mendi hauen magaletan ez dago zuhaitzik eta gailurrak glaziarrez estalita daude. Mendien artean lakuez jositako haran zabalak tartekatzen dira. Laponiako eremu menditsu honetan zenbait ibilbide markatu dira eta zeharkaldiak egiteko aukera itzela dago. Ibilbide horien artean ezagunena **Kungsleden bidea** edo Erregearen bidea da, Suediako iparraldean.



El autor nos relata sus experiencias a lo largo de 7 jornadas que necesitó para atravesar la parte norte del Kungsleden o también llamado Camino del Rey. Este trekking se extiende a lo largo de casi 400 km partiendo desde el Paque Nacional de Abisko y finalizando en Hemavan. Nos detalla sus vivencias y los paisajes que ha atravesado: arroyos turbulentos, mesetas de alta montaña, parajes salvajes, etc. Situado en la Laponia sueca, esta zona está considerada por la UNESCO como patrimonio de la humanidad. En estas tierras podemos encontrar maravillosos parques nacionales donde disfrutar y admirar la naturaleza en su estado más puro y salvaje. Suecia posee 29 parques nacionales y entre ellos están los de Sarek y Abisko, parques que el autor ha descrito de manera especial y detallada en este relato tan interesante como atractivo.

Kungsleden, Erregearen Bidea

Kungsleden, XIX. mendean Suediako Turismo Bulegoak sortutako mendi ibilbide bat da. 440 kilometroko luzera du eta Abisko eta Hemavan guneko turistikoak ditu hasiera-bukaera gunek. Gure "GR" ibilbideekin alderatu daiteke. Udan oinez eta neguan eskiekin egiteko prestatuta dago eta Suediako ibilbide ospetsuenetakoa da, nahiz eta gure artean oso ezaguna ez izan. Kungsleden bidea herrietatik urrun mantentzen da eta Samien udako zenbait borda eta mendi aterpeen eraikinak izan ezik, giza eraginik gabeko paisaiak zeharkatzen ditu. Zati askotan parke nazional edo erreserba naturaletatik igarotzen da eta inguru hauetan, hartza, katamotza edo jatuna moduko animalien azken populazioak bizi dira. Bertako mendiek forma bitxiak hartzen dituzte askotan higadura modu bereziak eraginda. Artiko ingurunekeo zenbait animalia espezie ikusteko aukera dago eta 24 orduko eguna zer den ezagutu daiteke. Horrek


guztiak eta, batez ere Artikoko argitasun ahul eta arrotzak, izaera berezi eta exotikoa ematen diote zeharkaldi honi, batik bat Europako hegoaldeko mendietara ohituta gaudenontzat. Lehen eta azken zatietan, Kungsleden bideak Suediako Turismo Bulegoak (STF) kudeatutako aterpeak ditu. Aterpeen arteko distantzia 10-20 kilometro artekoa izaten da eta hortaz, zati horiek kanpin-denda eta janari karga handiegirik gabe osa daitezke. Zati horiek ondo prestatuta daude, aintzirak zeharkatzeko txalupak eta ibaiak gurutzatzeko zubiak izaten dira, baina ez beti. Uda hasieran ibilbide horren iparraldeko zatia egiteko aukera izan dut, Abiskon hasi eta Vakkotavaren amaituz. Tarte hori, bospasei egunetan egin daiteke, baina beste egun pare bat pasa dut Kebnekaise mendi multzoa ezagutzen eta beste egun bat gehiago Saltoluokta inguruko mendietan. Ibilaldi zoragarria, aterpez aterpe, Artikoko mendi basatietan, baina Pirinio edo Alpeetan aurki daitezkeen erraztasunekin.

Artikoarekin lehen kontaktua

Bilbo-Frankfurt-Estokolmo-Kiruna. Egun eta erdiko bidaia luzea. Suediako herri iparraldekoena da Kiruna. Meatze-herria da eta esaten dutenez, munduko burdin beta handienaren gainean kokatzen da. Dagoen herrialdean kokatuta eta duen aberastasun minerala kontuan hartuta, ez da herri pobrea, baina ezta ere oso leku polita. Kale eta eraikin askok behin-behineko itxura dute.

Kiruna meatze-herria, munduko burdin beta handienaren gainean kokatzen da.

Herri berezi xamarra da, edo hori iruditzen zait niri behintzat, iritsi berria eta kaleetan paseatzen nabilen bitartean, egun gris, fresko (10° C) eta euritsuan. Hemen jazotzen dira Asa



Lassrsonen nobela beltzen pasarteak. Hiru hilabetez ez dute gauaren arrastorik izango, baina ezin esan argiz blai daudenik, gaur behintzat. Kaleetan, bertakoak eta kanpotarrak nahasten gara, azken hauek bi taldeetan sailkatuta gaudelarik: motxila handiak daramatzagun ibiltari edo mendizaleak eta are eta motxila handiagoak daramatzaten kirol arrantzaleak.

Kungsleden bidea Abisko guneko turistikoan hasten da, Kirumatik ordu eta erdira Norvegiako bidean. Bidaia hau trenez egin daiteke, baina nik autobusez egin dut. Autobuseko kreditu txartela pasatzeko makinak funtzionatzen ez duenez, ez diote inori txartelik kobratu, ezta esku-dirutan ordaintzera gindoazeno. Abiskon turismo bulegoko hotela eta aterpe bat daude eta parke nazionalaren museo eta informazio bulegoa. Leku interesgarria da, baina bidea



■ Abisko ibaia lehen etapan



■ Elur eperra Abisko parke nazionalen

hasteko irrikan nago. Museoari begirada azkar bat eman ondoren, bide hasiera markatzen duen arkupe azpitik pasa eta trekkinga hasi dut. Arratsaldeko 15:30ak dira eta 14 kilometro egin behar ditut Abiskojaure aterpera iristeko.

Lehen etapa Abisko ibai indartsuaren ertza jarraituz egiten da, urki-baso itxiak zeharkatuz. Paisaia oso ederra da. Haranak glaziarren higadurak eragindako U forma tipikoa du, laua hondoan eta malkartsua alboetan, mendiak elurrez estalita daude oraindik eta basoek, berriz, udaberriko berde bizia dute. Zerua lainotuta dago eta giroa oso hezea da, baina zorionez ez du euririk egiten. Bidea jarraitzea erraza da. Bi bide daude seinaleztatuta: udakoa eta negukoa. Batzuetan biak batera doaz, baina besteetan, desberdindu eta paraleloki doaz.

Udako bideak leku lehorrenak bilatzen ditu eta negukoak, berriz, laku eta zohikaztegien gainetik doaz, izoztuta daudenean ibilbide lau eta errazak bilakatzen baitira.

Artikoko faunaren lehen biztanleak ikusi ditut. Lemming batek, iparreko karraskari tipikoak, bidea gurutzatzen du nire aurrean. Pirinioetan hain urriak eta ikusteko zailak diren elur-eperrak arruntak dira hemen eta ez dute niganako beldur handirik adierazten. Baina bertako faunaren osagai ugariena ez da hain atsegina. Paisaia begiratzen geratzen naizen bakoitzean, eltxo laino batek inguratzen nau, agerian ditudan azal eremuen bila. Etorri aurretik, istorio beldurgarriak irakurri nituen intsektu hauek eragin zitzaizketen eragozpenei buruz. Ez

zait hainbesterako denik iruditu, baina memento batzuetan oso gogaikarriak izan daitezke. Mugitzen ari naizen bitartean edo haize pixka bat denean, ez dute arazo handirik eragiten. Haizea ez dagoen leku batean geldirik egonda ordea, lehen etapa honetako basoan esate baterako, berehala inguratu naute eta argazki bat ateratzen gelditzea desatsegina bilakatzen da. Edozein kasutan intsektuak uxatzeko produktu on bat eramatea komeni da.

Pirinioetan hain urriak eta ikusteko zailak diren elur-eperrak arruntak dira hemen

Lau ordu baino gutxiago behar izan ditut Abiskojaure aterpera heltzeko. Aurkitu ditudan ia aterpe guztiak bezala, laku eder baten ondoan kokatzen da (-jaure atzizkiak lakua esan nahi du suedieraz). Kungsleden bideko aterpeak bi motakoak dira: mendi etxolak (Mountain hut) eta mendi aterpeak (Mountain Station). Gehienak lehen motakoak dira, baina ez dira izenak irudikatzen duen bezain soilak, hiruzpalau eraikinez osatuta daude normalean. Batean zaindariaren tokia eta dendatxo bat egoten dira eta besteetan logela eta sukaldeak, eraikin bakoitzeko bat. Mendi etxoletan ez dituzte afariak ematen eta zuk prestatu behar duzu dena, baina horretarako erraztasun guztiak eskaintzen dituzte: sukaldea, sukaldeko tresneria eta ontziraturako janaria erosteko dendatxo bat.

Ez dago ez ur korronterik ez argirik. Ura, aterpearen arabera kanpoan kokatutako bidoi batzuetatik edo ibaitik bertatik hartu behar da. Ibaitek ura hartzeko leku konkretu bat markatzen da. Kontuz, beraz, non egiten den pixa! Beti ura hartzen den lekutik behera. Ur korronterik ez dagoenez, ez dago dutxarrik, baina aterpe guztietan sauna hartzeko eraikin bat dago.



■ Aliseatnu ibaia Alesjaure aterpetik



Bertako ur beroa eta ibaiko ur hotza nahasiz garbitzeko ur epela lor daiteke. Mountain Station-ek berriz denetatik dute: dutxa, sauna, denda, argindarra, wiffia eta jatetxea. Luxuzko aterpeak direla esan daiteke. Zenbait egunetan luxu txiki horiek gabe egon ondoren, gustura hartzen dira, baina mountain hut-ak baino askoz ere garestiago dira.

Ez mendi aterpeetan ez etxoletan, ez dute mendi federazioko txartelarekin deskonturik egiten, baina bai REAJ aterpe-kide txartelarekin. Txartela ateratzea merezi du, aterpeetan egiten duten deskontuaz gain, zenbaitetan aintzirak zeharkatzeko hartu behar diren txalupetan egiten dute eta. Edozein kasutan, aterpe guztiak txukun, garbi eta ondo zainduta daude eta zaindaria oso adeitsuak izaten dira, Mountain Hut-etan bereziki. Beste aukera kanpin-denda eramatea da. Hori da suediar gehienek egiten dutena, aterpeak janaria erosi eta prestatzeko erabiltzen dituzte, baina lotara inguruko txoko ezkutu batean jarritako kanpin-dendara joaten dira.

Aterpe guztietan sauna hartzeko eraikin bat dago

Abiskojauren izena eman eta berria naizela konturatuta, zaindaria tokatu zaidan etxolara lagundu eta argibide guztiak eman dizkit: ur garbia non hartu eta non hustu, sua pizteko modua, sukalde tresnak garbitzeko prozedura, sauna erabiltzeko ordutegi eta ohiturak, etab. Afaria prestatu, aintziraren ertzetik bueltatxo bat eman eta ohera zuzenean. Gaur ez dut gauerdiko eguzkia ikusiko, bidaia luzeak eta ibilaldiak nekatuta utzi bainaute.

Bigarren eguna, bustia

Hurrengo goizean euria ari du. 8º C-ko tenperatura. 20 kilometro dira Alesjaure aterperaino eta nagia pixka bat ematen du



■ Alesjaure aterpeko eraikinetako bat

ibilaldia hastea. Etxolaren atarian nagoela, aterpeko zaindaria gerturatu eta zer moduz lo egin dudari galdetu dit. Adeitasun maila hau ohikoa da aterpe zaindarien artean. Motxila jarri eta bidea hasi dut.

Berun koloreko zerua, berde kolore biziko urkiak, urez gainezka dauden ibai indartsuak, holako paisaia melankoliatsu eta erakargarriak igaro ditut ibilbidearen lehen zatian. Ordu pare bat ibili ondoren, mendi lepo bat gainditu eta paisaia soilagoa bilakatu da. Hemen hasi da tundra. Datozen egunetan ez dut zuhaitz bakar bat ere ikusiko. Laino itxiek estaltzen dute dena. Mapa begiratu eta nagoen lekutik mendi altuak eta zenbait glaziar ikusi beharko nituzke, baina memento honetan lanbroak dena estaltzen du eta metro gutxi batzuk besterik ez ditut ikusten. Goi-lautada batera iristerakoan, euria eta hezetasunari haizea gehitu zaie eta desatsegina egin da ibiltzea. Samiek udan ipar oreinak larratzeko erabiltzen duten borda multzo bat ikusi dut. Ez dago inor. Bordak itxita daude. Lautada zabal honetan ia dena ureztatuta dago.

Zohikaztegi eta errekek tartekatzen dira eta eremu lehorrak gutxi dira. Orokorrean Kungsleden bidea oztopo naturalak arazo handirik gabe gainditzeko egokituta dago, hau da, normalean ibai eta errekek gurutzatzeko zubiak daude eta zohikaztegi zabalak eta leku harritsuak zeharkatzeko egurrezko taulak jartzen dituzte. Hala ere, uda hasiera delako, eguraldia bereziki euritsua izan delako edo egiturek mantendu lanak behar dituztelako, gaurko etapan zenbait sorpresa aurkitu ditut; egur taulez osatutako pasabideak urez gainezka daude eta bizpahiru erreken gaineko zubiak "desagertu" egin dira. Zenbait pasabidetan ura orkatilaraino iritsi zait eta laster hankak erabat bustiko zaizkit.

Normalean ibai eta errekek gurutzatzeko zubiak daude

■ Tjåktja lepoko bidean hirugarren etapan.





■ Sealgga mendia (1865 metro)

Laino artean laku luze batera heldu naiz eta honen amaieran kokatzen da Alesjaure aterpea. Lakuaren ertzean japoniar talde bat aurkitu dut. Hamar bat dira, gehienak 60 urte gorakoak. Datozen egunetan behin baino gehiagotan aurkituko dugu elkar. Aterperako bidean oraindik zubirik gabeko bi erreka gurutzatu behar direla ohartarazi didate. Inguruko samiek txalupa zerbitzu bat eskaintzen dute aterpera iristeko eta baldintzak ikusita, hura hartzea erabaki dute. Dena den, gure aurretik oinez joatea erabaki duen jendea badagoela esan didate eta bidea jarraitzea erabaki dut. Handik gutxira, suediar batekin egin dut topo. Hurrengo errekan ura belauneraino iristen dela esan dit, baina dagoeneko botak bustiak ditugunez axola ez duela eta aterpean lehortuko garela dio. Zubi gabeko erreka pare bat gaingitu ondoren, Alesjaurera iritsi naiz azkenean. Etapa erraza izan beharko lukeen hau, pentsatutakoa baino gogorragoa bilakatu da. Blai iritsi naiz. Aterpea bi laku artean dagoen muino batean kokatzen da.

Tjåktja lepoa

Hirugarren egunean Salkä aterpera iristeko asmoa dut. Etapa luze xamarra da, 25 kilometro eta Kungsleden osoko mendi lepo altuena pasa behar da, Tjåktja (1123 metro). Hala ere, lepora iritsi aurretik, Tjåktja aterpea dago eta nahi izan ezkerreko etapa bi egunetan banatzeko aukera dago. Goiz abiatu naiz eta eguzkia ikusteak bizipoza ematen du. Noizbehinka pertsona bakan batzuk gurutzatu ditut, baina gehienetan ez da inor ikusten eta munduan bakarrik nagoen sentsazioa daukat, zuhaitzik gabeko tundra arrotz honetan. Bi aldeetara mendi elurtuek ixten duten haran luze eta zabal bat jarraitu behar dut eta ez dago galtzeko arriskurik. Ipar orein talde handi bat ikusi dut urrut.

Igoera pixkanaka egiten da, luzea da, baina ez dago aldapa handirik. Goiz erdian Tjåktja aterpearen bidegurutzera iritsi naiz. Alde batera utzi eta aurrera jarraitu dut. Lepo aurreko bidearen azken zatia elurrez estalita dago oraindik. Polainarik gabe, gaur ere bota bustiekin

ibili beharko dut. Lepoan aterpe libre txiki bat dago, txukuna eta garbia, estufa eta egurrez ondo hornitua. Piriniotan ez dira horrelakoak aurkitzen! Nire aurrean, datozen egunetan zeharkatuko dudako haran luzea zabaltzen da. Haizea freskoa izan arren, ederki egoten da eguzkiak berotutako harri handi baten gainean eserita, bazkaltzen eta paisaia begiratzen. Lepoaren beste aldean elur gutxiago dago eta erraz jaitsi naiz haran hondora. Handik bi orduko bidea dago oraindik aterperaino, aldaparik gabe, baina harriz jositakoa eta une batzuetan deserosoa egiten da.

Ohikoa den moduan, Sälka aterpeko zaindarien oso harrera atsegina egiten didate, ahabi zukua eskaini eta sukalde eta saunaren funtzionamendua pazientzia handiz azaldu didate. Sauna probatzea erabaki dut. Ohitura ez duen batentzat bero gehiegi egiten du denbora luzez irauteko, baina berogailutik ateratako ur beroa eta erreka ur hotza kuboetan nahasiz bainu bat hartu dut. Suediarrak, saunatik irten

■ Tarfala ikerketa zentrua



eta ondoko errekan murgiltzen dira, baina ura hotzegia dago niretzat. Gauerdian lozakutik atera eta kalera irten naiz eguzkia ikusi gabe baineukan oraindik. Sentsazio berezia da. Gau giro ona dago, baina egunsenti moduko argi ahulak dena ikustea ahalbidetzen du. Elur-erbiak eta elur-eperrak beldurrik gabe aterpe inguruan dabilta.

Kebnekaise mendigunean barrena

Hurrengo etapan Kungsleden bidea oraingoz alde batera utzi eta Kebnekaise mendigunean barneratzera noa. Kebnekaise (2111 m) Suediako eta Laponia osoko mendi altuena da eta udan mendizale asko erakartzen ditu, batez ere bere lurraldeko gailurra lortu nahi duten suediar asko.

Kebnekaise, Suediako eta Laponia osoko mendi altuena da

Sälka aterpe atsegina atzean utzi eta laster bidaiako lehen glaziarra azaldu da, Sealggaglaciären glaziarra, 1865 metroko mendiaren magalean. Sälka-tik bi ordura aurkitu dut bidegurutzera. Aurrera, hegoaldera, Singi aterpea eta Kugsleden bidearen jarraipena, ekialdera, berriz, Kebnekaise aterpeko bide aldapatsua. Azken bi egunetan jarraitu dudana harana alde batera utzi eta ezkerreko bidea hartu dut. Ibai ondolik urrundu behar dudanez, ura hartu dut badaezpada bide alboko erreka batean. Dena den, inguru hauetan ura ez da arazoa izaten gehienetan, haranak errekez josita daude eta badago kantiploraren orde z potoa besterik ez



■ Kaitumjaure aterperako bidean, seigarren etapan.

daramanik, ez baita gehiegi itxaron behar non bete aurkitu arte. Ez dago kutsadura arazorik, ura oso garbia da eta iragazi gabe edan daiteke.

Aldapa handi xamar bat igo ondoren, bideak laku eder bat inguratzen du. Bi ipar orein ikusi ditut, elurtuta dagoen eremu batean etzanda. Jaitsiera motz bat egin eta Singi aterpetik datorren bidera iritsi naiz. Azken bi orduetan ez dut inor ikusi, baina bide honetara iritsi bezain pronto, mendizale talde desberdinekin topo egin dut. Kebnekaise ingurua, bide osoko jendetsuena da. Aurrera egin ahala paisaia gero eta ikusgarriagoa bilakatu da. Harana estutu egiten da, bi aldeetara altxatzen diren

mendi garaien artean. Arroila amaitzean, harana zabalduta eta iparralderantz Kebnekaise mendi multzoa agertu da. Hemendik ez da Kebnekaise gailurra ikusten baina bai 1662 metrotako Duolbagorni mendi ederra. Kebnekaise luxuzko aterpea da, mountain station erakoa eta zerbitzu guztiak eskaintzen ditu: dutxa, iturriak, komun normalak, jatetxea, wiffia tarteka, kañeroko garagardoa, mendi materiala alokatzeko aukera, etab. Bidaia osoko aterpe jendetsu eta zalapartatsua da. Nikkaluokta herritik ordu gutxitan iritsi daiteke hona eta jende asko etortzen da Kebnekaise igotzera edo naturaz goatzera. Estatubatuarrak, alemaniarrek, japoniarrek, leku askotako

■ Kaitumjaure aterpe inguruak





■ Zazpigarren etapan Sjaunja erreserba naturaleko paisaia.

mendizaleak elkartzen dira hemen, baina nagusiki suediarrek. Deigarria da suediar askok daramaten motxilaren tamaina. Ondo betetako 80 litroko motxilak dira nagusi eta batzuetan nork motxilarik astunena eraman lehiatzen ari direla dirudi. Hala ere, mendizaletasunaren azken joerak ere hona heldu dira eta bada trekkinga 30 litroko motxilekin eta korrika egiten duen jendea ere.

Aterpeko jatetxe dotorean afora ez da merkea, baina zenbait egunetan ontziraturako janaria jaten egon ondoren merezi du eta iparraldeko zenbait espezialitate dastatzeko aukera dago, ipar orein haragiz egindako pastela edo alte erreka esate baterako. Aterpean dagoen jende askok Kebnekaise tontorra igotzeko asmoa du. Nik, berriz, Tärfa goi harana ezagutu eta bertan dauden glaziarrek ikusi nahi ditut. Helburu horrekin, hurrengo goizean, 6tan ohetik altxa, buffetea luxuzko gosaria hartu eta bidea arin hasi dut, azken egunetan bizkarrean eraman dudana zama gehiena aterpean utzita. Hasieran bidea aldapan beheara doa, Tärfa ibaiarekin topo egin arte. Korrontea zubi eseki baten bidez gurutzatu eta igoera hasi da. Bidea eroso da orokorrean, baina tarteka, neguko arrastoak aurkitzen dira eta haiek utzitako elur eremuak zeharkatzea neketsua egiten da. Aurrerago, harana zabaldu eta lehen glaziar frontea agertu da, Storglaciären glaziarrena hain zuzen ere. Kebnekaise mendiaren ekialdeko magaletik jaisten diren hiru glaziarretako bat Kebnekaise mendiko ekialdeko magaletik jaisten diren hiru

glaziarretako bat munduko glaziar ikertuenetakoa da. Pixka bat aurrerago Tärfa ikerketa zentroa kokatzen da. Hemen glaziologia, geomorfologia eta klimatologia ikerketak burutzen dira 1946. urtetik.

Tarteka, neguko elur jausien arrastoak aurkitzen dira

Ikerketa zentrotik 20 bat minutura Tärfa aterpea dago, harana ixten duen mendi zirkuan kokatuta, laku baten ondoan eta glaziar baten mingain arraildua alboan duela. Aterpera iritsi eta ni ikusi orduko, egurra zerratzen dabilen zaindaria lana utzi eta korrika etorri da harrera egitera. Goiz da oraindik eta glaziarren ikusmen hobeago bat lortzeko aukerei buruz galdetu diot. Hona nentorrela, ekialdean mendi lepo nabarmen bat ikusi dut eta haren ezkerrean, harrizko mendi tontor bat. Tontorrera igotzea nahiko erraza dela eta bertatik glaziarrek bere osotasunean ikusten direla esan dit. Hortaz, aterpe inguruan buelta bat eman ondoren, lepoko bide aldapatsua hartu dut. Zenbait elur eremu zeharkatu eta behetik guardak erakutsi didan bidexka batera iritsi naiz. Ez da oso bide nabarmena eta berehala galdu dut berriro. Magal osoa harri solte handiek osatzen dute eta kosta egin zait aurrera egitea. Azkenean, lepora iritsi eta Kebnekaise-tik jaisten diren hiru glaziarrek bere osotasunean ikusteko gai izan naiz. Suedia eta Laponia osoko mendi altuenak

ditut aurrean. Lepoaren beste aldera azaltzen den harana ez da hain menditsua, baina sekula ikusi dudana lekurik "hutsena" dela iruditu zait: ez zuhaitzik, ez biderik, ezta inongo bizitza arrastorik.

Behetik ikusitako gailurrerako norabidea hartu dut. Aldapa malkartsua da eta harri bloke handiek deserosoa bihurtu dute. Azkenean, gailurra markatzen duten harri pilora iritsi naiz. Hunkigarria da hemen bakarrik egotea. Han behean, urruti, ikerketa zentroa eta Tärfa aterpea ikusi ditut baina, horrez gain ez dago gizakiaren arrastorik. Gero, aterpean mapa begiratuta, Tarfalapakse (1813 m) igo dudala jakin dut, Darfalcohka mendiaren bigarren mailako tontorretako bat. Tentu handiz jaitsiera

■ Zazpigarren etapan Sarek mendiak ikusten dira urruti



hasi dut, harri solteek arretaz ibiltzera behartzen baitute. Haran hondora iritsi eta bidea berreskuratu dudanean, harri baten gainean eseri eta glaziar fronteei begira bazkaldu dut. Eguna inguru bakartietan igaro ondoren, Kebnekaise aterpea zalapartatsua iruditzen zait. Dena den, txangoa luzea izan da eta gustura hartu ditut ordainetan eskaintzen duen erosotasuna: sauna, dutxa, garagardoa eta afari oparoa.

Azken egunak, lakuz laku

Seigarren etapan Kungsleden bidea berreskuratu eta Kaitumjaure aterpera iristeko asmoa dut. Herenegun etorritako bidetik ordu pare batez atzera egin eta Singi aterpera iritsi aurretik, hegoaldera zuzentzen den desbideraketa hartu dut. Bide berria hartu bezain pronto, Kebnekaise eta Singi aterpeen arteko bidean dabilen jendetza atzean utzi eta bakardadea berreskuratu dut. Kungsleden bideko atal ezagun eta ohikoena Abisko eta Kebnekaise artekoa da eta hemendik hegoalderantz askoz ere jende gutxiago dabil.

Trekkingeko igoerak ez dira orokorrean desnibel handikoak

Aldapa handi xamar bat igo ondoren, goi-lautada bat igaro dut. Laku bat inguratu, mendi lepo txiki bat gainditu eta orain dela bi egun utzitako haranera jaitsi naiz berriro. Aterperako bideak haran hau zeharkatzen du, beti ibaiaren ondotik. Altura jaitsi ahala, lehen zuhaitzak agertzen dira eta Kaitumjaurea iritsi baino lehen, urki baso itxi bat zeharkatu dut. Zuhaitzekin batera, ia ahaztuak nituen eltxoak itzuli dira. 25km eta 7 orduko ibilbidea egin ondoren, aterpera iritsi naiz. Zaindaria paseatzera joan omen da, beraz motxila bertan utzi eta nik ere berdina egin dut. Aterpe inguruko paisaia ikusgarria da. -jaure atzizkiak adierazten duen moduan, aterpea laku baten ondoan dago bi mendi lerro artean luzatzen den kolore urdin argiko laku ederra. Aterpea kokatzen den muinoaren azpian, korrante

handiko ibai bat lakuratzen da eta, korrante horren alboan, hori koloreko are fina duen hondartzatxo bat. Bidaia osoko egun beroena da eta aterpean ostatua duen jende gehiena hondartza inguruan dabil, uretan freskatzen. Paisaiatzeko leku aproposa da Kaitumjaure. Aterpera itzultzean, zaindaria bertan dago. Ostatua ordaindu, dendatxoan afaria erosi, arropa garbitu eta arratsalde atsegina pasa dut irakurtzen eta paisaiari begira, haizea eteten den bakoitzean eltxoak gogaikarriak diren arren.

Hurrengo Kungsleden bidean egingo duen azken etapa da. Vakkotavare aterpea da gaurko helmuga eta errepidez iritsi daitekeen lehen aterpea da. Baina hara heldu aurretik 25 km, bi mendi lepo eta laku bat zeharkatu behar ditut. Sjaunjako Erreserba Naturean barneratu eta eguneko lehen igoera egin dut. Trekkingeko igoerak ez dira orokorrean desnibel handikoak eta mendi lepoak zabalak dira, goi-ordoki itxurakoak. Goiko lurretatik Sarek Parke Nazionalaren mendi eta glaziarrek ikusten dira, Laponiako mendi multzo garaieneko bat eta Suediako parkerik "basatiena".

Lehen mendi lepoa gaindituta, Tesajaure lakura jaitsi beharra dago eta izen bereko aterpetik kilometro bateko zabalera duen lakua gurutzatu behar da. Horretarako bi aukera daude: hamarrak baino lehen iritsi ezker, aterpeko zaindaria gidatutako motorrezko txalupan zeharkatu daiteke (20 euro inguru aterpe txartelarekin), bestela, arraun txalupaz doan gurutzatu daiteke. Lakuaren beste ertzean Stora Sjöfallet Parke Nazionala hasten da. Berrito gora, basotik lehendabizi eta ondoren mendi txilardegi eta larreetatik. Goi-lautada zabal bat gainditu eta Suorvajaure lakua azaldu da behean. Han daude Vakkotavare aterpea eta nire ibilbidearen amaiera den errepidea. Hara jaitea besterik ez zait falta.

Jaisten ari naizela urki egurrekin egindako bastoi bat daraman tipo batekin egin dut topo, bera aldapan gora. Aterpeko zaindaria da. Eguneroko mendi buelta ematera doa, baina aterpean kokatzeko argibideak eman dizkit. Vakkotavaren, asfaltoa eta autoak ikusi ditut lehen aldiz azken sei egunetan. Presa batek handitutako laku baten ondoan dago eta kable

elektrikoek errepidearen lerroakadura jarraitzen dute. Ez da azken egunotan ohitu naizen ukitu gabeko paisaia naturala, baina tira, lekua polita izaten jarraitzen du eta Ahkka mendia (2015 m) bista onak daude. Arratsaldea ez da orain arte ohikoa izan den bezain lasaia. Talde handi bat etorri da autobusez. Kungsleden bidea kontrako zentzuan egiteko asmoa dute, bi gidariz lagunduta, nik, ordea, hemen bukatu beharra daukat nire trekkinga. Kiruna-Estokomo-Bilbo bidai luzea egitea besterik ez zait falta.

Informazio orokorra Fitxa teknikoa

1. etapa: Abisko-Abiskojaure (16 km)
2. etapa: Abiskojaure – Alesjaure (20 km)
3. etapa: Alesjaure – Sälka (25 km)
4. etapa: Sälka - Kebnekaise Mountain Station (24 km)
5. etapa: Tärfala igo eta Kebnekaise Mountain Station-era itzuli (20 km)
6. etapa: Kebnekaise Mountain Station–Kaitumjaure (24 km)
7. etapa: Kaitumjaure – Vakkotavare (23 km)

Nola heldu

Irteera "ofiziala" eta ohikoena Abisko da, Kiruna hiritik autobusez ordu eta erdira. Stockholmetik Abiskora trenez zuzenean joan daiteke (18 ordu) edo Kirunara hegazkinez (2 ordu) eta gero autobusez Abiskora.

Aterpeak

Bi aterpe mota daude: Mountain Station (Fjällstation suedieraz) eta Mountain Hut (etxolaka). Udan gordeta daude eta oso ondo horniturik. Mountain Station aterpeetan gainera, jateketa, dutxak, materiala alokatzeko eta beste zenbait zerbitzu eskaintzen dituzte. Aterpeen artean 15/20 kilometroko tartea dago. Pilak eta bateriak eramatea komeni da, baita dirua eskutan, kreditu txartelak ez baituzte onartzen. Mountain Hut-etan ezin da erreserbarik egin, baina bai Mountain Station aterpeetan. Mendi Federatu txartelarekin ez dute beherapenik egiten, aldiz, aterpeetako karnetarekin (RAEJ) bai. Aterpeen inguruan kanpatu daiteke eta bertako zerbitzu batzuk (sukaldea eta sauna) diru gutxi ordainuz erabili daitezke. Komunikatzeko ez dago estaldurarik.

Webgunea

Suediako Turismo Bulegoa: <http://www.svenskaturistforeningen.se/en/Discover-Sweden/Facilities-and-activities/Lapland/kingstrail/>

Bibliografia eta Kartografia

- * Grundsten, Claes (2009). Kungsleden: Walking the Royal Trail from Abisko to Hemavan. Carreg, Hildersley. Ingeleseaz.
- * Pyrenaica: P.M. Lizarraga, Jose R. Aperribay, L. Forsgren, El Kebnekaise. 100 km. por Laponia, 123 (1981).
- * Kirunako Turismo Bulegoan eta zenbait aterpetan ibilbidearen mapa zehatzak aurkitu daitezke.

